

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

2020ko bigarren hiruhilekoari dagokion etxerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuaren tasaren errolda, jendaurreko erakusketa eta ordainaldia

Etixerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketako zerbitzuaren tasaren errolda, 2020ko bigarren hiruhilekoari dagokiona, jendaurrean jartzen da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontaktzen hasi eta 15 laneguneko epe barruan interesdunek aztertu eta egokizat jotzen dituzten erreklamazioak udal bulegoetan aurkeztu ahal izateko.

Aipatutako epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, errolda behin betirako onartuko da.

Erreziboak ordaintzeko epea, lekuak eta medioak ondokoak dira:

Epea: 2020ko urriaren 19tik 2020ko abenduaren 18ra, biak barne.

Helbideratutako erreziboak, baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agindutako kontu korrontean zordunduko dira egun honetan: 2020ko azaroaren 16an.

Helbideratu gabeko erreziboak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko ditugu, eta Udalak dauzkan finantza entitate kolaboratzaileetako bulegoetan (Kutxabank eta Laboral Kutxa) egin beharko da ordainketa. Agiri hori eskura eduki ezean edo 2020ko urriaren 30erako agiri hori jaso ez bada, udaletxean, bulego orduetan, eskatuko du agiria, borondatezko ordainketa aldian.

Borondatezko epean zorra ordaintzen ez bada, premiamendu prozedura betearazleari ekingo zaio eta fase horri dagozkion errekaruak, berandutze interesak, eta hala badagokio, kostuak gehituko zaizkio hasiera zenbatekoari.

Aramaio, 2020ko irailaren 15ean

Alkatea

LIERNI ALTUNA UGARTE